



**Onartua: GAO 1996-08-20**

**Aldatua: GAO 2001-02-22**

**Aldatua: GAO 2011-03-18**

## **Bide Publikoen Garbiketa eta Eraiketa zein Lurren Erabilera eta Iraupenari Buruzko Eginbeharren Udal Ordenantza.**

### **I. IDAZPURUA: BIDE PUBLIKOEN GARBIKETA**

#### **I. ATALBURUA: HELBURUA ETA IRAUPEN ZEIN ERABILERA EGINBEHARRAK**

##### **1. Atala. Helburua.**

Batetik, herritarren erabilerari dagokionez, bide publikoen garbiketa arautzea eta bide publikoa zikindu ez dadin, prebentzio, zuzenketa eta/edo konponketa neurriak ezartzea ditu helburu atal honek, baita zoru legeko 21. artikuluan adierazitako erabilpen, mantentze eta berroneratze gutxieneko betebeharrak ezartzea, eta bestetik lur zoru legeko testu bateratuan (edo aurrerantzean agertzen den araudian) 21. artikuluan ezartzen diren iraupen, erabilpen eta birgaitze eginbeharrak zehazten dituenak.

##### **2. Atala. Entitate kudeatzailea.**

Udal zerbitzuek bide publikoaren sare osoa garbitu eta bertatik datozen hondakinak bilduko ditu, zerbitzua behar den moduan eman dadin, egoki diren maiztasun eta ordutegiez.

1. Hauek izango dira bide publikotzat joko direnak eta, beraz, udalak garbitu beharko dituenak: pasealekuak, etorbideak, kaleak, plazak, espaloiak, bideak, lorategiak, eta berdeguneak, lur-lekuak, zubiak, oinezkoentzako tunelak eta herritarrek erabiltzeko dauden herri jabari eta erabilera publikoko gainerako ondasunak, erabilera publikoko zortasuna duten lekuak barne.

2. Salbuetsiko dira, izaera publikorik ez dutelako, urbanizazio pribatuak, pasabideak, barne-patioak, orubeak, merkatal galeriak eta antzekoa, partikularrei dagokielarik guzti horiek garbitzea, jabetza bakarra nahiz konpartitua nahiz erregimen horizontalekoa izan. Mankomunitateak elementu horien garbiketaren kontrola egingo du.

##### **3. Atala. Udalarenak ez diren zerbitzuetako elementuak garbitzea.**

Zerbitzu horien titular administratiboei dagokie herritarren zerbitzurako diren eta udalaren ardura ez diren bide publikoetako elementuak garbitzea, eta baita herriko espazio publikoak ere, horien titulartasuna Administrazioaren beste organo batzuei dagokienean.

##### **4. Atala. Jabari pribatuko kaleak, patioak eta elementuak.**

1. Jabeen eta erabiltzaileen ardura izango da jabari pribatuko kale eta patioak garbitzea.

2. Higiezinaren komunitate zein jabari pribatuko elementuak, baita markesina eta kristalezko estalkiak ere behar den maiztasunez garbitu beharko dira. Finketan bizi direnei dagokie betebeharrak hori eta, besterik ezean, finken jabeek eta jabeekideek, eta bide publikotik begi-bistan dauden patio, lorategi eta sarbideak garbi mantentzeaz ere arduratuko dira.

#### 5. Atala. Inmuebleetako ageriko aldea.

Finka, etxebizitza eta establezimenduen jabeak bide publikotik begi-bistan dauden inmuebleetako aldeak garbi mantentzera beharturik daude.

#### 6. Atala. Zamalanak.

Establezimendu aurrean zamalanak egiten direneko establezimenduen titularrek, espaloiak garbitu egin beharko dituzte behar den guztietan eta, gainera, udal agintaritzako agenteek agintzen duten guztietan, bide publikoa behar bezala garbi mantentzeko.

Gainerakoan, zamalanetarako, Trafiko, motordun ibilgailuen Zirkulazioa, eta segurtasun bialaren Araudian azaltzen diren arauak, Udaltzaingoaren oharrak, eta udal araubideak bete beharko dira.

#### 7. Atala. Lur, obra-hondakin edo ikatzen garraioa.

1. Lurrak, ikatzak, obra-hondakinak, hautsa sortzen duten materialak, kartoiak, paperak eta antzeko beste edozein material garraiatzen dituzten ibilgailuen jabe eta gidariek, material horiek isurtzean bide publikoa zikindu eta, beraz, beste batzuei kalte egin diezaieketez, kontu handiz beteko dute Trafikoa, motordun ibilgailuen zirkulazioa eta seguritate bialari buruzko araudian ezarritakoa, zama ez jausteko moduan egokitzeko eta horretarako behar diren neurriak hartzeko.

2. Bide publikoan zama jausi edo isurtzea sortzen duten eta bide-segurtasunerako arriskuak sortzaketan istripu, iraulketa edo beste gorabehera batzuk gertatuz gero, ahalik eta azkarren jakinarazi beharko diote gidariek udaltzaingoari, eta horrek garbiketarako zerbitzu publikoari adieraziko dio.

#### 8. Atala. Ibilgailuen garbiketa.

1. Aurreko atalean adierazi diren lanetarako erabiltzen diren ibilgailuen gorpila, baita hondeaketa-obretan, eraikuntzan edo antzeko beste batzuetan erabiltzen direnenak ere, garbitu egin beharko dira obretatik edo lantokitik irtetean, bide publikoa lokatzik zabaldu ez dadin.

2. Era berean, obretako baimenean esandako guztia bete beharko da. Baita Trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazio eta seguritate bialari buruzko araudiak dioena.

#### 9. Atala. Kiosko eta beste saltoki batzuen garbiketa.

1. Zirkoak, antzerkiak eta ibiltari ikuskizunak, bai finkoak, bai desmuntagarriak, baita mahai, aulki eta herri-bidean dauden instalazioen titular edo arduradunak, beharturik daude hartzen duten leku eta inguruak garbi mantentzera, jarduera burutzen duten orduetan, eta baita egoera berean uztera ere, lan-jarduna amaitu eta gero.

2. Betebehar horixe dagokie kafetegi, taberna eta antzeko establezimenduen jabeei, batetik mahai-aulkiez hartzen den bide publikoaren azalerari buruz eta, bestetik, fatxadaren luze-zabalerari dagokion espaloitari buruz.

#### 10. Atala. Orubeen jabeak.



Bide publikoarekin mugan dauden lurren jabeek, lerrokadura ofizialean dauden itxidura etengabeez hesitu beharko dituzte. Era berean, hondakinik gabe, higiene-eta segurtasun-neurriak hartuz eta apain zaindu beharko dituzte. Horretaz gain, indarrean dagoen Hirigintzaren Legedian ezarritako arau guztiak bete behar dituzte.

#### 11. Atala. Elur- garbiketa.

Elurteetan, eraikinetan bizi direnen ardura izango da elurra garbitzea eta, besterik ezean, finka bakoitzaren jabeena, finka bakoitzak hartzen duen luze-zabaleraren arabera. Ura ondo isurtzeko moduan eta ibilgailu eta pertsonen atzera-aurrera ez oztopatzeke moduan utzi beharko dute elurra.

#### 12. Atala. Garbiketarako lerroa.

Udalaren iritziz trafikoaren intentsitateak eta galtzadaren zabalerak uzten duten kale eta lekuetan, 20tik 25 cm-rako lerro etengabe bat seinalatuko da zintarritik, ibilgailuek ezin izango dutena zapaldu, zerbitzuko langileek arrastaka eraman beharreko zabor-piloa erraz bildu ahal izan dezaten.

#### 13. Atala. Landareak ureztatzea.

Honela ureztatu beharko dira balkoi eta terrazetan jarritako landareak; ura bide publikora ez isurtzeko moduan eta oinezkoei zein auzokoei kalterik ezta okerrik ere ez sortzeko moduan.

## II. ATALBURUA: DEBEKU OROKORRAK

#### 14. Atala. Hondakinak eta zaborrak.

Ezin da hondakinik eta, oro har, edozein zabor-mota bota edo utzi bide publiko edo pribatuetan, haien sarbideetan, estolderi sarean eta hesidun edo hesi gabeko orube edo finketan; edukiontziak eta hartarako diren ontziak eta zabor-guneak erabili beharko dira beti.

#### 15. Atala. Balkoi eta leihoetatik jantziak eta bar astintzea.

Ezin da bide publikoan jantzi, alfonbra edo eta edozein elementu astindu balkoi eta leihoetatik, goizeko 9etatik gaueko 22ak arte, eta behar diren neurriak hartuko dira oinezkoei kalterik ez sortzeko.

#### 16. Atala. Bide publikoak.

1. Ezin da hondakinik bota bide publikoan, hala nola, zigarrokinak, paperak, bilgarriak edo antzeko beste edozein hondakin; hartarako jarrita dauden paperontzietan utzi beharko dira.

2. Halaber, ezin da etxe, areto edo eta ibilgailuetatik hondakinik bota, nahiz abian doazela nahiz geratuta daudela.

#### 17. Atala. Eskrementuak edo gorotzak.

Kalean pixa edo kaka-egitea debekatuta dago (adinez gazteak badira, guraso eta tutoreengan eroriko da horren erantzukizuna). Animalien jabeek edo arduradunek, haien animalien eskrementu edo gorotzei dagokienean, gizabide arauak eta dagokion Ordenantza betez.



## 18. Atala. Kanpoaldeko lanak.

Zarata sortarazten duten mailuketak, sarketak, makina pozointsuak edo dunbotsak eta baita edozein motatako gogaitasuna sortarazten duten lanak egitea debekatuta dago, etxe, balkoi, kale, barneko patioetan e.a. Udalaren baimenaz burutzen direnean ezik.

## 19. Atala. Obra-hondakinak kentzea.

Kalean obrak egingo direnean edota kalea erabiltzen bada edozein obra-tipotarako hondakinak depositatzeko, hurrengo arau orokorrak bete beharko dira:

—Galarazia geratzen da zuzenean kalean depositatzea eraiketa materialak eta ondoriozko obra-hondakinak, horretarako jarrita egongo diren edukiontzietan depositatuko direlarik. Hauek arreta handiz kokatuko dira zorua kaltetu gabe, edukiontziak lurretik isolatuak geratuko direlarik egurrezko tabloien eta antzeko mekanismoren baten bidez.

—Edukiontziak jartzeko arauzko udalbaimena beharko da. Edukiontziak normalean jarriko dira egoki aparkatuta dauden ibilgailuek eratzen duten kanpo aldeko marra gainditu gabe eta beti ere udal agintariek seinalatutako lekuan.

Aipatu edukiontziak hutsik dauden beste batzuekin ordezkatzeko dira edukin osoaren lautatik hiruz beteta daudenean.

—Baimenen titularrek hurrengo betebeharrak konplitu beharko dituzte edukiontziak trasladatzeko:

a) Lanak bukatu eta hurrengo 24 orduetan obra-hondakinak erretiratu egin beharko dituzte eta edukiontziak ezingo dira kalean eduki larunbatetan 14:00etatik aurrera edota jai-bezperetan 20:00etatik aurrera, astelehen-goizetako 7:00ak arte edota jai-ondorengo egunak arte, baimenaren titularrak garaiz erretiratu beharko dituelarik.

Edukiontzia jai-bezperan erretiratzeko asmotan, obraren promotoreak erreserbatu ahal izango du edukiontzia egon den lekua behar bezala seinalatuz obrak seinalizatzeko arauen arabera (1990ko maiatzaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala).

b) Aurreko paragrafoan esaten dena ez bada betetzen, Udal Txit Garaiak edukiontziak erretiratu ahal izango ditu era subsidiarioan eta beti aurreko obligazioa huts egiten duenaren kargura, bere kargura joango direlarik edukiontziak lekuz aldatzeak eta almagazatzeak sortu ditzakeen gastuak, kontuan hartu gabe aplikatu dakioken santzioa edota legaltasun urbanistikoa berrezartzeko espedientea izapidetzearen tasa abonatzea kasu balitz.

—Edukiontziak behar bezala estalita egongo dira normal erabiliko diren lan-ordutegiaz kanpo.

—Edukiontzia erretiratu orduko, eraikitzaileak edo arduradunak garbitu egin beharko du bera egon den lekua.

—Salbuespenez Udalak exijitu ahalko du egokiak derizkion kasuetan eta hiriko zirkulazioaren garapen normalean izan dezakeen eragin kaltekorren arabera, edukiontziak jarri eta erretiratzea garai edo leku zehatzetan ordutegi murriztu baten barruan eginaraztea, kasu bakoitzean Korporazioak finkatuko duen haur.



## 20. Atala. Ibilgailuen garbiketa eta hondakinen manipulazioa.

Ezin da bide publikoa zikin dezakeen ekintzarik egin eta batez ere, ezin da ibilgailurik garbitu eta konpondu eta ezta hiri-hondakin solidoak manipulatu eta aukeratu ere. Halaber, edozein garbiketa egin eta gero, ezin da ur-hustuketarik egin.

## 21. Atala. Herri jabarien okupaketak.

Udal lurrak mahai eta aulkiekin, makina, edukiontzi, propaganda edo eta edozein motatako objektuekin okupatzea debekatuta dago; bai baimenik gabe zein bete gabe, edo baimenaren soberan egiten denean.

Udaltzaingoak edo eta edozein agintaduri, neurrizko epea emanaz, ahal izango du jasotzeko agindua eman aurrean aipatutako betetzen ez denean. Jabari publikoa instalazio finko edo handiekin okupatzen denean, eta horiek kentzeko agindua egikaritze aldera, hertsatze-isunak jar daitezke, 29. artikuluan aurreikusitako era eta irismena aintzat hartuta.

Salbuetsiko da Udal altzari eta erabilitako tresnen bilketa. Aipatu bilketa Hiriko Zabor Bilketa eta Erre Ezineko Ondakinen Tratamenduari Buruzko Udal Agintarautzaren bidez bideratuko da.

## III. ATALBURUA: PUBLIZITATEA

### 22. Atala. Ekintzak publikoak.

1. Ekintza publikoen antolatzaileak horien ondorioz sortzen dien zizkinkeriaz arduratuko dira. Halaber, beharturik daude Udalarik ekintzaren ibilbidea, ordutegia eta lekua adieraztera, kasu bakoitzean gaia dagokien agintariei eskatu beharreko baimen eta jakinarazpenen kaltetan gabe.

2. Fidantza eskatuko die Udalak ekintza die Udalak ekintza hori burutzearen ondorioz sor daitezkeen garbiketa-lanengatik; langileen ordukostea, materialak eta beste edozein moduan zenbakor daitekeen kontzeptuetan oinarrituz.

### 23. Atala. Publizitate-elementuak.

1. Publizitate elementuak ezartzekotan, baimena eskatu, eta hauek bete beharko dira baimena izateko: erabili diren bide publikoetako espazioak garbitzea eta publizitate-elementuak eta haiei dagozkien akzesorioak baimendutako epean kentzea.

2. Soinodun publizitateak baimenak ezarritako ordutegia eta soinu-muga errespetatu beharko dute.

3. Herriko Katalogo Historiko Artistikoan barne hartzen diren eraikinetan jarri nahi diren publizitate-elementuak Hirigune Zaharreko Egitamu bereziarekin bat ekingo dira.

### 24. Atala. Kartelak, pankartak eta itsasgarriak jartzea.

1. Leku publikoetan jartzen diren pankartak berariazko baimenaz ezarriko dira.

2. Kartelak, pankartak eta itsasgarriak bakarrik zinta itsasgarriarekin jarriko dira, horretarako egokitutako tokietan eta aurrez Udalaren baimena jasota.



3. Eskabidea, jarri nahi den publizitateko kolorea, mota, materiala eta neurriaren ezaugarriak zehaztuko ditu.

4. Kartel, iragarki eta pankartak ezin dira kendu, urratu eta/edo bide publikora bota.

25. Atala. Orriskak.

Ezin da orriskarik eta antzeko materialik zabaldu eta bota.

26. Atala. Pintadak.

Bide publikoetan ezin da pintadarik egin, egiturazko elementu, hiri-altzari, galtzada, espaloi, harresi, eta hormetan udal agintaritzaren alde zuzeneko baimenik gabe eta ugazabaren baimenik gabe.

#### IV. ATALBURUA: HIRI ALTZARIEN GARBIKETA ETA KONTSERBAZIOA

27. Atala. Arau orokorrak.

Kalte apurto edo suntsitzen dutenek parke, lorategi, berdegune eta bide publikoetan dauden hirialtzariak, hala nola, jarlekuak, haurrentzako jolaslekuak, paperontziak, HHSetarako edukiontziak, iturriak, seinalizazioak eta elementu apaingarriak, farolak eta estatuak adibidez, erantzukizun osoa dute, ez bakarrik egindako kaltearen ordaina emanaz, baizik eta administrazioaren zigor bidez. Zigorra egindako kaltearen araberakoa izango da egona daitezkeen erantzukizun penalen kaltetan gabe.

28. Atala. Erabilera egokia.

A) Jarlekuak: Ezin da jarlekuak behar ez bezala erabili, edo ezin da haien kontserbazioa kaltetu edo hondatzen duenik egin eta, bereziki, finko daudenak atera, lurzorura finkaturik ez daudenak bi metrotik gorako distantziara eramanez, modu desordenatuan taldekatu, bertan idatzi edo pintatu.

Haurrak zaintzeaz arduratzen diren pertsonen kontu handia izango dute, haurrek jolas egiten dutenean, jarlekuetan are, ur, lokatz zein jarlekuak zikindu edo euren erabiltzaileei kalte egin diezaiekeen beste edozein elementurik utz ez dezaten.

B) Haurrentzako jolaslekuak: Hartzarako ezartzen diren kartel adierazleetan agertzen diren adineko haurrek bakarrik erabiliko dituzte, eta ezin izango dituzte erabili helduek edo sektore edo joko bakoitzean berariaz adierazten den adinean ez dauden adin txikikoek.

C) Paperontziak: Horretarako diren paperontzietan utzi beharko dira hondakinak edo paperak.

Debekatuta dago paperontzirik manipulazioa (mugitu, sua eman, irauli, urratu), paperontzietan izenak jartzea edo eranskinak itsastea eta haien estetika hondatu eta erabilera oztopa dezakeenik egitea.

D) Iturriak: Debekatuta dago iturrien hoditeria eta elementuak manipulazioa, ohizko erabilerak eskatzen duenerako ez bada.



Iturri apaingarrietan, hornitegietan, urpaldoetan eta antzeko elementuetan, ezin izango da edan, uretan sartu, jolasean jardun, ura manipulatu eta, oro har, uraz burutu daitekeen ekintzarik egin.

E) Seinalizazioak, farolak, estatuak, elementu apaingarriak eta ikuskizunetarako behin-behineko instalazioak:

Ezin da horietara, igo, horietan dinbili-danbala ibili edo horiek zikindu, kaltetu, hondatu edo horien ohizko erabilera eta funtzionamendua gutxitzen duen edozein ekintza egin.

## II. IDAZPURUA: ARAU- HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

### 29. Atala. Arau-haustek eta zigorrak.

Administrazioko arau-hauste arinak izango dira Ordenantza honetan ezarritakoa urratzen duten egintzak edo egin gabekoak; eta, zehazki, edukiontzia bide publikoan egotea larunbatetan 14:00etatik aurrera, eta jai bezperetan 20:00etatik hurrengo astelehen edo laneguneko 7:00ak arte arte, eta edukiontzia lurretik ez isolatzea.

Administrazioko arau-hauste larria izango da Ordenantza honetan ezarritakoa doloz urratzea, eta urtebeteren buruan hiru zigor arin izatea, eta, nolahi ere, bide publikoak okupatzea Ordenantza honen 19. artikuluan ezarritako baimenik gabe. Halaber, administrazioko arau-hauste larria izango da jabari publikoa okupatzea 21. artikuluan aipatzen diren instalazio finko edo handiekin, dagokion baimenik gabe, edo baimenean jasotzen den helburua ez den bestelako helburu batekin.

Administrazioko arau-hauste oso larria izango da urtebeteren buruan hiru zigor larri izatea.

Ezar daitezkeen zigorrak:

- Arinak: ohartarazpena edo 750 euro bitarteko isuna.
- Larriak: 751tik 1500 euro bitarteko isuna.
- Oso larriak: 1501etik 3000 euro bitarteko isuna.

21. artikuluan aurreikusten diren hertsatze-isunen zenbatekoa gehienez ere ezarritako zehapenaren % 20koa izango da, eta isunak ezin izango dira hamar egun baino tarte txikiagotan jarri, Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 197.2. artikuluan aurreikusitakoarekin bat. Hertsatze-isuna arrazoi beragatik ezar daitezkeen bestelako zehapenetatik bereizia da, eta horiekin bateragarria da.

Araudi honen aurkako arau-haustek erantzukizun zibilak edo penalak ere izan daitezke, hala nola hirigintza-araudian jasotakoak ere.

### 30. Atala. Prozedura, graduazioa eta kalteak.

Horri buruz indarrean dagoen araudira egokituko da Prozedura Zigortzailea.

Ofizios edo alde batek eskaturik emango zaio hasiera prozedura zigortzaileari, dagokion salaketaren bidez. Ondorio hauetarako herritar ekintza ezartzen da.

Zigorren graduaziorako, aplikagarriak diren konstituzional eta zigor abiaburuekin batera, Herri Administrazio guztien zuzenbide Arauen Administrazio Jardunbidearen Legean eta Zoru Legeko



eta Hiri Ordenakuntzari buruzko Testu Bateratuan agertzen diren gorabeherak baloratuko dira. Udalaren jabari publikoa merkataritza-jardueraren bat egiteko okupatzen bada, kontuan hartuta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 131.2. artikuluan ezarritakoa (“Diruzko zehapenak ezartzerakoan, zaindu egin behar da arau-hausleari ez dakion onuragarriago gerta legetan jasotako arauak haustea, horiek betetzea baino”), aplikatzekoa den zigorra ezartzeaz gain, udalaren jabari publikoa okupatuz lortutako irabaziak konfiskatuko dira.

Berrerorletzat joko da, aurreko urte batean arrazoi beragatik behin edo behin baino gehiagotan zigortu izan den partikularra. Edozein modutan ere, berdin diolarik zein zigor jar daitekeen, ordaintzapen egokia izan beharko dute ondasun publikoei eragindako kalteek kontrajarriko prozesuaren bidez, baita Udal lurrak oztopatzen duten gauzakiak gordetzeko lanak ere.

Edozein modutan ere, zigorren ezarpenak konstituzio eta zigor kodearen printzipioetan oinarrituko dira.

31. Atala. Zaintza eta betearaztea.

Udaltzaingoa izango da Ordenantza honen funtzionamendu zuzenaz arduratuko dena.